

Zabalkiko txapelketan final erdietara heldu ginen eskupilotako modalitatean

2016/02/15

Zabalkiko topaketa internazionalak, bere 21. edizioa ospatu du aurten.

Topaketa hau, 2016ko otsailaren 11an ospatu da Bayonan, 11 unibertsitate ezberdinetako ikasleek parte hartuz.

Gure parte hartzeari dagokionez, eskupilotaren kasuan, pilota gogorrarekin jokatzen da, eta finalerdiak jokatzeke sailkapena lortu zuten. Hori bai, gure ikasleek 4 partidu jokatu zituzten finalerdia baino lehen eta horrek duen neke eta esku mina kontutan hartuz, ezinezkoa ezin zitzaien txapelketan aurrera egitea.

Frontenisaren kasuan, pilota internazionalan jokatzen da eta gure ikasleek ez zuten ezer egiterik izan Valentzia eta Frantziako ikasleen kontrako partiduetan, pilota horrekin jokatzen ohitu gabe daude eta.

Jardunaldi luzea izen arren, ikasleak pozik bueltatu ziren txapelketatik eta datorren ikasturtean Iruñean izango den edizioaren zain geratu ziren.

Ikusi txapelketako emaitza denak. eta argazkiak

Eskerrik asko gure ordezkari.

